



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.12.17

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria

Nerea Letamendia Belloso

Jokin Azkue Arrastoa

Ez bertaratutako zinegotzia:

Iñigo Alonso Sarasibar

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea :

Ainhoa Molinos Zubiaurre

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko abenduaren hamazazpian, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Aurreko akta onartzea.
2. Onartzea Euskal Herria Plazako 1-B eraikinean, Hotelari dagokion lotean, esleipeneko oinarri espezifikoetan jasotako diru-laguntzak.
3. Onartzea Tolosako Olarrain Auzo-Elkarteko eraikinaren irisgarritasuna bermatzeko proiektua.
4. Onartzea Tolosako Olarrain Auzo-Elkarteko eraikinaren irisgarritasuna bermatzeko obren kontratazio-espeditentea eta lizitazio jardunbideari hasiera ematea.
5. Tolosaldeko enpresek langabezian dauden pertsonak kontratatzeko 2018 ekitaldirako Lanbidek sustatutako diru-laguntzen banaketa onartzea.
6. Tolosako Udaletxearen tokiko eremuaren informatika-sareak berritu eta zabaltzeko horniduraren kontratazio espeditentea onartzea eta lizitazio



TOLOSAKO
UDALA

jardunbideari hasiera ematea

**7. 70/2018 eta 71/2018 faktura-
zerrendak.**

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko abenduaren 10ean egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

2. ONARTZEA EUSKAL HERRIA PLAZAKO 1-B ERAIKINEAN, HOTELARI DAGOKION LOTEAN, ESLEIPENeko OINARRI ESPEZIFIKOETAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK.

AURREKARIAK

Lehena.- 2016ko uztailaren 27an Udalbatzak erabaki zuen, besteak beste, onartzea Euskal Herria Plazako 1-B eraikinean egokitzekoa zen hotel zerbitzuaren lotea esleitzeko oinarri espezifikoa eta hotelaren kudeaketa arautuko zuen baldintza teknikoaren plegua.

Bigarrena.- 2016ko abenduaren 29an, behin jardunbidea tramitatuta, Udalbatzak erabaki zuen aipatutako kontratua BIDEBIDE TOLOSA, S.L. enpresari esleitzea, Euskal Herria plazako 1-B eraikinean egokitu behar zen hotelaren zerbitzuari zegokion lotea.

Hirugarrena.- 2017ko urtarrilaren 18an, BIDEBIDE TOLOSA, S.L. enpresaren eta Tolosako Udalaren ordezkariak zegokion kontratua sinatu zuten eta hura Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, orduan agintzen zuen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen arabera.

Laugarrena.- 2018ko urriaren 26ean, BIDEBIDE TOLOSA, S.L. enpresaren ordezkari den Luis Enrique Niño Redondo jaunak, horren izenean eta ordezkapenez idatzi bat aurkeztu zuen Udal erregistroan, 8218 sarrera zenbakiarekin, Euskal Herria Plazako 1-B eraikinean egokitu den hotel zerbitzuaren lotea esleitzeko oinarrietan jasotako diru-laguntzak eskatuz: batetik, 300.000 euroko itzuli beharrik gabeko diru-laguntza ematea eta, bestetik, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari (ICIO) dagokionez kontzeptu horregatik ordaindutako zenbatekoaren pareko diru-laguntza.

Bosgarrena.- Hirigintza Departamentuko arduradunak azaroaren 19an egindako txostenean, hau aipatzen du: *“Beraz, 8.1 artikuluan jasotzen dira obrarekiko betebeharrak bete direla esan daiteke. Oinarrietako gainontzeko baldintzak betetzen diren Idazkaritzak (Kontratazio atalak) eta Kontu-hartzaitzak ziurtatu dezaten hauen txostenetara*



TOLOSAKO
UDALA

bideratzen da. Hala nola, hotel zerbitzuen tarifak, erantzun zibileko aseguru-polizaren eta eraikinak jasan ditzakeen kalteen aseguru-polizaren baldintzak, euskarari dagozkion betebeharrak, e.a.”.

Seigarrena.- 2018ko abenduaren 4ean, espedientearen tramitazioarekin jarraitu ahal izateko, BIDEBIDE TOLOSA, S.L. enpresaren ordezkari den Luis Enrique Niño Redondo jaunari errekerimendua egin zitzaion erantzukizunpeko aitorten bat bete zezan bai kontratuan, bai pleguetan azaltzen diren betebeharrak betetzen dituela esanez. Erantzukizunpeko aitorten hau abenduaren 5ean aurkeztu zuen udal erregistroan -sarrera zenbakia 9461- eta bertan, errekerimenduan eskatutako dokumentazio guztia aurkezten du. Halaber, egun berean, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga (ICIO) ordaindu zuen udal diruzaintzan (honen ziurtagiria txertatu beharko du udal kontu-hartzaitzak espedientearen).

ARAUBIDE JURIDIKOA

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 21, 22, 25 eta 72. artikulua.
- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki-Korporazioen Zerbitzuen Araudia onartzen duena; II. Titulua.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-Laguntzei buruzkoa; 9.2, 22.2, 28, 30 eta ondorengoak.
- 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua; 55, 65, 66 eta 67 artikulua. Erregelamendu hori ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen.
- Diru-laguntzen udal ordenantza. Kasu honetan, diru-laguntza izendunak udal ordenantzako 13.3,a eta 18-22 artikuluek arautuko dituzte.
- Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorren Ebazpena, 2015eko abenduaren 10ean emana. Horren bidez arautzen da zer prozesu jarraitu behar den Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionalan (SNPS) subentzio eta laguntzen deialdien erregistroa eta publizitatea egiteko.
- Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorren Ebazpena, 2015eko abenduaren 9an emana. Horren bidez arautzen dira Diru-laguntzen Datu-Base Nazional berriari eman beharreko informazioaren edukia eta maiztasuna.

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koak, Diru-Laguntzei buruzkoak bere 22. artikuluan hau xedatzen du:

“Artículo 22. Procedimientos de concesión.

1. El procedimiento ordinario de concesión de subvenciones se tramitará en régimen de concurrencia competitiva. A efectos de esta ley, tendrá la consideración de concurrencia competitiva el procedimiento mediante el cual la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración



TOLOSAKO
UDALA

previamente fijados en las bases reguladoras y en la convocatoria, y adjudicar, con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de los citados criterios. En este supuesto, y sin perjuicio de las especialidades que pudieran derivarse de la capacidad de auto-organización de las Administraciones públicas, la propuesta de concesión se formulará al órgano concedente por un órgano colegiado a través del órgano instructor. La composición del órgano colegiado será la que establezcan las correspondientes bases reguladoras. Excepcionalmente, siempre que así se prevea en las bases reguladoras, el órgano competente procederá al prorrateo, entre los beneficiarios de la subvención, del importe global máximo destinado a las subvenciones.

2. Podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones:

a) Las previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Estado, de las Comunidades Autónomas o de las Entidades Locales, en los términos recogidos en los convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones.

A efectos de lo establecido en el párrafo anterior, se entiende por subvención prevista nominativamente en los Presupuestos Generales del Estado aquella en que al menos su dotación presupuestaria y beneficiario aparezcan determinados en los estados de gasto del Presupuesto. El objeto de estas subvenciones deberá quedar determinado expresamente en el correspondiente convenio de colaboración o resolución de concesión que, en todo caso, deberá ser congruente con la clasificación funcional y económica del correspondiente crédito presupuestario. b) Aquellas cuyo otorgamiento o cuantía venga impuesto a la Administración por una norma de rango legal, que seguirán el procedimiento de concesión que les resulte de aplicación de acuerdo con su propia normativa. c) Con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

3. No podrán otorgarse subvenciones por cuantía superior a la que se determine en la convocatoria.”.

ONDORIOAK

Lehena.- Aipatutako Hirigintza Departamentuko arduradunaren txostenean eskatutakoa betetzeko, kontratu hori egikaritzean, bai kontratuan, baita horren zati banaezina den Baldintza Pleguetan xedatutakoa betetzen dela ziurtatzen du Niño Redondo jaunak, aipatutako erantzukizunpeko aitorenarekin. Bertan esaten du, jarraian azaltzen diren betebeharrak guztiak betetzen dituela:

- Lan arloan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloetan indarrean diren lege, arau eta hitzarmen guztiak betetzen dituela; bereziki, Eraikuntzako eta Obra Publikoetako Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboan jasotako lan baldintzak.
- Aurrekoa, enpresa azpikontratatuak ere betetzen dituela.
- Irekitzeko eta ixteko ordutegiak betetzen dituela.



- Hotela osatzen duten zerbitzuak (gelak, garbitasun zerbitzuak, harrera eta instalazioetako gainerako elementuak) baldintzarik onenetan emateko behar beste langile dituztela, hiru langile.
- Funtzionamendurako beharrezkoak diren baimena guztiak dituztela.
- Erreklamazio-orriak erabiltzaileen eskura dituztela.
- Emakidari lotutako ondasunak ez dituela besterendu eta ezta zergapetu ere.
- Jarduera Ekonomikoaren zergan eta Gizarte Segurantzaren alta emanda daudela.
- Lan arloko eta zerga arloko legerian ezarritako betebeharrak betetzen dituztela.
- Euskarari dagozkion betebeharrak guztiak betetzen dituen (txostenak, zerbitzua, ahozko-komunikazioa, ea).
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzen dutela.
- Kontratuan edota Pleguetan azaltzen diren bestelako betebeharrak betetzen dituztela.

Halaber, ziurtagiri bidez frogatu du jarraian azaltzen diren betebeharrak:

- Emakidadunak erabiltzen dituen tarifa zerrenda.
- Erantzun zibileko aseguru-poliza indarrean dagoela (1.200.000 euroko estaldurarekin).
- Eraikinak jasan ditzakeen kalteen aseguru-poliza kontratatuta eta indarrean dutela (2.000.000 euroko estaldurarekin).

Bigarrena.- Diru-laguntza emateko orduan, 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, Diru-Laguntzei buruzkoak xedatzen duena kontuan harturik, bi motatako diru-laguntza egon daitezke, zuzenak (izendunak) eta konkurrentziaz ematen direnak. Zuzenak, aipatutako legearen 28. artikuluan xedatutakoaren arabera emango dira eta beharrezkoa izango da dagokion hitzarmena sinatzea. Gainera, beharrezkoa da hauen zenbatekoa aurrekontuetan aurreikusita egotea.

Bestetik, konkurrentziaz ematen diren diru-laguntzak, legeak esandako **“tendrá la consideración de concurrencia competitiva el procedimiento mediante el cual la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentada”** ezaugarria bete beharko dute.

Gure kasuan eta aurreko guztia aintzat harturik, eskatutako diru-laguntzak konkurrentziazkoak edo zuzenak diren izan beharko da argitzeko lehenengo gauza:

- 1.- Diru-laguntza udal aurrekontuan dagoenez hirurehun mila euroko (300.000,00 €) zenbatekoarekin, diru-laguntza zuzena dela pentsa genezake, baina hori horrela izanda ere, egia da zenbateko hori aurrekontuaren diru-laguntzen zatian ez dagoela. Horrela balitz ere, zuzena izateko hitzarmen bat sinatu beharko litzateke diru-laguntza jasotzen duen onuradunarekin.
- 2.- Behin eta berriz aipatutako bi diru-laguntzak (hirurehun mila eurokoa eta Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari dagokionez kontzeptu horregatik ordaindutako zenbatekoaren parekoa) lizitazio publiko batean jasotako baldintzak dira; hau da, lizitazioa arautzen duten Baldintza Pleguetan argi geratzen zen



TOLOSAKO
UDALA

esleipendunak aipatutako diru-laguntzak jasoko zituela eta beraz, enpresa lizitatuak guztiak euren proposamenak aurkeztean hasieratik ezagutzen zuten, esleipendunak izaten baziren, zenbateko horiek jasoko zituztela. Beraz, nahiz eta zehatz mehatz 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, Diru-Laguntzei buruzkoak xedatzen duena ez den jarraitu, konkurrentzia bidezko prozedura baten aurrean gaudela ulertu daiteke.

Hirugarrena.- Aurreko guztia aintzat harturik, Kontratazio unitateak ez du eragozpenik ikusten aipatutako diru-laguntzak emateko, bai hirurehun mila euroko (300.000,00 €) itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, baita Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari (ICIO) dagokionez kontzeptu horregatik ordaindutako zenbatekoaren pareko diru-laguntzari ere. Horretarako, beharrezkoa izango da Udal Kontuhartzaileak aldeko txostena igortzea, beti ere udal diruzaintzan ordaindu beharreko zerga eta betebeharrak guztiak ordainduta daudela frogatu ondoren.

Laugarrena.- Kontuhartzaileak 2018ko abenduaren 13an egindako txostenean, aipatutako bi diru-laguntzak ordaintzeko aldeko txostena egin du, bete beharreko baldintza guztiak betetzen direlako eta kreditu nahikoa eta egokia dagoelako 2018ko aurrekontuan.

Aurreko guztia aintzat harturik, Idazkaritza eta Kontuhartzailtzeta Departamentuek egindako aldeko txostenak eta Udal teknikarien proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea 2018ko urriaren 26ean, BIDEBIDE TOLOSA, S.L. enpresaren ordezkari den Luis Enrique Niño Redondo jaunak egindako eskaera eta 300.000 euroko itzuli beharrik gabeko diru-laguntza ematea eta, bestetik, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari (ICIO) dagokionez kontzeptu horregatik ordaindutako zenbatekoaren pareko diru-laguntza ordaintzea ere; guztira **hirurehun eta hamazazpi mila eta berrogeita hamabi euro eta berrogeita hamabost zentimo (317.052,55 €)**.

BIGARRENA.- Erabaki horiek Kontuhartzailtzeta Departamentuari jakinaraztea.

3. ONARTZEA TOLOSAKO OLARRAIN AUZO-ELKARTEKO ERAIKINAREN IRISGARRITASUNA BERMATZEKO PROIEKTUA.

Ikusirik Udal ingeniari teknikoak egindako txostena proposatzen da onartzea Olarrain auzo elkartearen irisgarritasuna bermatzeko gauzatzeko obrak egikaritzeko proiektua.



TOLOSAKO
UDALA

Udal ingeniari teknikoak egindako txostena ondorengoa da:

TXOSTENA

Txosten honen xedea Harreman SLeK idatzitako Olarrain auzo elkartean irisgarritasuna bermatzeko egikaritze proiektu zuzendua onargarria den aztertzea da.

I. AURREKARIAK

Udalak Olarrain auzoan auzo elkarte bat du, bertan, ez daude bermatuak irisgarritasun baldintzak. Hori dela eta, auzotarren ordezkariak, maiz, Tolosako Udalari behar diren neurriak hartzeko eskatu izan diote.



Eskaerari erantzuteko asmoz aukeren aurre-azterketa bat egin zen. Beste azterketen artean, igogailu bitartez irisgarritasun arazoak saihestea aztertu zen. Aurre-azterketak hainbat aukera landu ondoren, agirian jasotako proposamena garatu zuen : Olarrain auzo elkartean irisgarritasuna bermatzeko egikaritze proiektua.



Horrela, Alkate-Udalburuak, 2018ko irailaren 4ko Alkatetza Dekretu bidez, Tolosako Olarrain auzo-elkartearen irisgarritasuna bermatzeko obrak jasotzen zituen proiektua onartu zuen. Proposamenak aurkezteko epean, ordea, enpresek ez zuten proposamenik aurkeztu; beraz, 2018ko urriaren 29an Kontratazio Mahaia bildu eta aho batez Kontratazio-Organuari aipatutako obra-kontratuaren lizitazioa huts deklaratzeko proposatu zion. Alkate-Udalburuak Kontratazio Mahaiak proposatutakoa jarraituz, lizitazioa huts deklaratu zuen 2018/2039 Alkatetza Dekretuan jasotzen denez.

Ondoren, Udal tekniko arduradunak eta proiektua idatzi zuen teknikoak hainbat kontsulta egin genituen. Hain zuzen ere, 5 kontratistei kontsulta egin zitzaion. Esleipena hutsik gelditzeko arrazoiak finkatzeko Tolosako Udal webgunean zintzilikatuak dauden esleipen dokumentuak aztertzeko eskatu genien. Jasotako 4 erantzunek aurrekontua eskasa zela adierazi zuten. Hori dela eta, Tolosako Udalak Harreman SLri proiektua merkatuko errealitatera egokitzeko beharrezkoak diren aldaketak egiteko eskatu dio. Dokumentu honek jasotzen ditu aldaketa horiek onartzea proposatzen da.

II. EGUNGO EGOERA

Elkarteko jarduera nagusiak goiko solairuan egiten dira, bertara igotzerik ez dago modu irisgarrian. Horretaz gain, solairura igotzeko dauden eskailerak eta hormigoizko losak egokitzapen lanen beharrea daude.

Lanak gauzatzeko behar diren elkartearen inguruko lurrak, ADIFen jabegokoak dira. Horietatik zati bat Tolosako Udalak alokairuan ditu, beste zati bat ADIFen esku daude. Beharrezkoak diren lurrak lanerako eskuragarri izan daitezten, Tolosako Udalak alokairu kontratu zaharra egokitzea hitzartu du ADIFekin. Aipatutakoa jasotzen da GL18058 txostenean.

III. EGOKITZE PROPOSAMENA

Proiektua hainbat fasetan banatzen da:

- 1. Fasea. Sarbidea bidetik.
- 2. Fasea. Eraikina eta plazarekin lotura.
- 3. Fasea. Eskailera eta hegalaren eraisketa eta berreraiketa.

Esleipen prozesu honen helburua 1. eta 3. faseak gauzatzeko da. Ondoren egin beharreko lanak azaltzen dira, proiektuan jasotzen diren bezala:

1 fasea

Obraren bidez eraikinaren goiko solairua pasabide eta arrapala baten bidez dagoen bidearekin lotu nahi da.



TOLOSAKO
UDALA

Egiturak

Pasabidea 8 m luze izango da eta elkarren ondoan dauden eta 2 m zabalera eta 25 zm-ko ertza duten 2 forjatu albeolarrek osatuko dute gehi 5 zm-ko konpresio-hormigoizko geruza HA-25/B/40/IIa, B500S 15x15x6 sareaz egina.

Pasabidea arrapalaren ertzean finkatuko da hormigoizko estribu bidez, eta metalezko egitura batean eraikinaren aldetik.

Hormigoizko estribuak 2.4 m-ko zabalera izango du eta HA-25/B/40/IIa hormigoizkoa izango da.

Eraikinaren aldetiko bermea HEA 180 eta HEA 220 altzairu laminatuzko profilez egindako T bat izango da. Egitura hau 195x105x40 mm neurriko, eta HA- 25/B/40/IIa eta B500S mailazoz osatutako zimendu zentratugabeen bermatuko da.

Trenbidearen ondoko arrapalaren ezponda babesteko bataz-besteko 500 kg baino handiagoa den lubeta-harri edo eskoilera partida bat aurreikusi da.

Bide-zoru eta Zoladurak:

Sarbiderako bide-zorua, ZA 0/32- zko 15 zm, HA-25/B/40/IIa hormigoizko eta B500S 15x15x8 mailazodun 15 zm-ko zoladura eta baldosa hidraulikoz osatuko da.

20x8 zm-ko lorategi-zintarri prefabrikatua hormigoizko zimendu gainean egikarrituko da, eta haren kontra hormigoizko HM-20 areka egikarrituko da.

Altzariak

Bizitokirako sarbide guztian zehar 100 zm altuerako beroan galbanizatutako altzairuzko barandak kokatuko dira, $\varnothing 50 \times 1,5$ mm-ko profil tubularrezko goiko eta beheko helduleku bikoitzez eta hauei 50x2 mm-ko pletinaz lotutako $\varnothing 50 \times 1,5$ mm-ko profil tubularrezko pilastrez osatutako bastidorez osatua, espantsiozko ainguraketa mekaniko bidez finkatuak.

Itxiturak

Bidearen bazterrean segurtasun itxitura bat jarriko da, trenbidearekin mugatzen duena, 2 metrozko altuerakoa eta urrien dagoen errailetik 5,80 mko distantziara.

Belar-sastrakak garbitzea

Sarbidearen eraikuntza dela eta, kaltetutako landaretzaren mozketak eta belar-sastrakak garbitzeak egiteko idazpen bat aurreikusi da.

Kaltetutako zerbitzuak

Ur-honiduraren hargunea pasagunearen zutabearen zimenduarekin topo egiten du.

2.1.2. AURREKONTUA

Burutze Materialerako Aurrekontua: HOGEITA HAMABI MILA BEDERATZIEHUN ETA HAMABI EURO eta HOGEITA BI ZENTIMO (32.912,22 €).

Gastu orokorrak (%13) eta etekin industrialak (%6) gehitu ondoren, Kontratako Burutze Aurrekontua (BEZ barne): BERROGEITA ZAZPI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAR EURO eta HOGEITA HAMAR ZENTIMO(47.390,31 €).

3. fasea

Eraisketa egingo da, eraikinari lotutako armadurak mantenduz, bai lehen solairura igotzeko kanpoko eskailerarena nola eraikinaren lehen solairuan dagoen hegalararena ere; eta ondoren HA-25/B/40/IIa hormigoiarekin eta B500s mailazoarekin berreraikiko da.

Lehen solairuko terrazaren zoladura eraistea ere aurreikusten da, ondoren iragazgaitze -tratamendu bat ezartzeko, eta hormigoi-geruza bat eta baldosa hidraulikoz estaltzeko.



TOLOSAKO
UDALA

Bide-zoru eta Zoladurak:

3. faseko jarduketa guztietarako azaleko bukaera baldosa hidraulikoz egingo da, bai terrazaren forjatuan, bai eskaileran.

Solairu nagusian iragazgaitza den oihal asfaltikoa erabiliko da. Eta 5 zm-ko HA-25/B/40/IIa hormigoizko eta B500s Ø5mm 15x15 zm-ko mailazoko geruza batez babestuko da.

Altzariak

Bizitokiaren goiko solairura igotzeko kanpoko eskailera guztian zehar 100 zm altuerako baranda bat kokatuko da, Ø50 mm-ko hotzean laminatutako altzairuzko profil hutsezko tutu zirkularrezko goiko eta beheko helduleku bikoitzez, eta Ø50 mm-ko hotzean laminatutako altzairuzko profil hutsezko tutu zirkularrezko Ø50x1,5 mm-ko profil tubularrezko pilastrez (150 zm-ko tartearaz kokatuak) osatutako bastidorez osatua; bastidorearen tartearak betetzeko atalak beroan laminatutako altzairuzko 20 mm diametroko profil trinkozko barrote biribil bertikalak, 10 zm-ko tartearekin eta Ø50 mm-ko hotzean laminatutako altzairuzko profil hutsezko tutu zirkularrezko eskudelekin, espantsiozko ainguraketa mekaniko bidez finkatua.

Eraikinari erantsitako eskaileraren alboan beroan galbanizatutako altzairuzko eskudel bat kokatuko da, Ø50x1,5 mm-ko profil tubularrezko goiko eta beheko helduleku bikoitzez osatutako bastidorez osatua, espantsiozko ainguraketa mekaniko bidez finkatua.

2.2.2. AURREKONTUA

Burutze Materialerako Aurrekontua: HAMAHIRU MILA EHUN ETA SEI EURO eta LAUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (13.106,95 €).

Gastu orokorrak (%13) eta etekin industrialak (%6) gehitu ondoren, Kontratako Burutze Aurrekontua (BEZ barne): HAMA ZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO eta HIRUROGEITA HAMA IKA ZENTIMO (18.872,710€).

IV. DOKUMENTAZIOA

Proiektuak, besteak beste, hurrengo dokumentazioa jasotzen du:

1. DOKUMENTUA: MEMORIA ETA ERANSKINAK

Memoria

Eranskinak:

1. Argazkien Eranskina
2. Trazadura Eranskina
3. Obren – Plana Eranskina
4. Prezioen justifikazio Eranskina
5. Kalitate-kontrolaren Eranskina
6. Hondakin- kudeaketa Eranskina
7. Egituren Eranskina

2. DOKUMENTUA: PLANOAK

0.1. Posizioa



0.2. Kokapenak

1. Gaur Egungo Egoera
2. Solairu Orokorra
3. Definizio geometrikoa
4. Trazadura
 - 4.1. Oinplanoa eta Luzarokoa
 - 4.2. Zeharkakoak eta Ebaketa
5. Egiturak
 - 5.1. Oinplanoa eta Altxaera
 - 5.2. Xehetasunak
 - 5.3. Eskailera
6. Kaltetutako zerbitzuak
7. Altzariak

3. DOKUMENTUA: BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA

4. DOKUMENTUA: AURREKONTUA

5. DOKUMENTUA: SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERKETA

1. Eranskina: ADIFen Obrak Egiteko Baimenaren Eskaera


V. EPEA

Etleipen honetako lanak gauzatzeko proiektuak aurreikusitako epea hilabete batekoa da; 1go eta 3. faseak gauzatzeko.

Auzoko festak hasi aurretik, 2018ko urriko bukaeran, lanen gauzatuak edukitzen saiatzea adostu da bizilagunekin, helburu modura. Aipatutako datarako, lanak bukatzea zalantzan balego, festen ondoren hasiera ematea da asmoa.

Lanen banaketa orokorra eta ordena ondorengo diagraman jasotzen da:

Nombre de tarea	Duración	Comienzo	Fin	Predecesoras
FASE 1	25 dias	01/01/2018	02/02/2018	
TRABAJOS PREVIOS	5 dias	01/01/2018	05/01/2018	
MOVIMIENTO TIERRAS	5 dias	08/01/2018	12/01/2018.2	
ESTRUCTURA	10 dias	15/01/2018	26/01/2018 3CC+5 dias	
FIRMES Y PAVIMENTOS	5 dias	15/01/2018	19/01/2018.3	
JARDINERIA	5 dias	29/01/2018	02/02/2018.4	
MOBILIARIO URBANO	3 dias	31/01/2018	02/02/2018 6CC+2 dias	
FASE 3	10 dias	26/02/2018	09/03/2018.8	
DEMOLICIONES	2 dias	26/02/2018	27/02/2018	
ESTRUCTURA	4 dias	26/02/2018	05/03/2018.16	
FIRMES Y PAVIMENTOS	3 dias	06/03/2018	08/03/2018.17	
MOBILIARIO URBANO	1 dia	09/03/2018	09/03/2018.18	
GESTION DE RESIDUOS	10 sem.	01/01/2018	09/03/2018	
CONTROL DE CALIDAD	10 sem.	01/01/2018	09/03/2018	
SEGURIDAD Y SALUD	10 sem.	01/01/2018	09/03/2018	





VI. ADIF

Proiektuaren idazte-lanak iraun duten bitartean ADIFekin harremana mantendu da, bi gai lantzeko:

Lurren kudeaketa eta lanak egiteko baimena-eta baldintzak- zehaztea.

Lurren kudeaketari dagokionez, Tolosako Udala eta ADIFen arteko akordioa 2018ko uztailearen 16ko Gobernu Batzordean onespena eman zitzaion.

Obra baimenari dagokionez berriz, Udalean ADIFek sartu zuen 5337 zenbakidun sarrera erregistroko idatzia.

Bertan Udalak 1.704,20 €-ko ordainketa egin behar duela adierazten da eta 90.000 €-ko bermea jarri behar dela obrak dirauten bitartean.

VII. AURREKONTUA

Esleitzea proposatutako lanen kopurua **66.263€** dira. Proiektuko 1go eta 3. faseei dagokiena.

RESUMEN DE PRESUPUESTO / AURREKONTUAREN LABURPENA		
Proyecto de Accesibilidad en la Asociación Vecinal de Olarrain		
CAPITULO KAPITULUA	RESUMEN LABURPENA	EURO
F1.	FASE 1.....	32.912,22
	1. FASEA	
-F1.01	TRABAJOS PREVIOS.....	1.130,65
	AURRETKO LANAK	
-F1.02	MOVIMIENTO TIERRAS.....	3.232,52
	LUR-MUGIMENDUA	
-F1.03	ESTRUCTURA.....	6.582,45
	EGITURA	
-F1.05	FIRMES Y PAVIMENTOS.....	6.862,08
	BIDE ZORUAK ETA ZOLADURAK	
-F1.07	JARDINERIA.....	146,58
	LOREZANTZA	
-F1.08	MOBILIARIO URBANO.....	12.174,31
	HIRI-ALTZARIAK	
-F1.GR	GESTION DE RESIDUOS.....	441,61
	HONDAKINEN KUDEAKETA	
-F1.CC	CONTROL DE CALIDAD.....	257,13
	KALITATE-KONTROLA	
-F1.SS	SEGURIDAD Y SALUD.....	2.064,89
	SEGURTASUNA ETA OSASUNA	
F3.	FASE 3.....	13.106,96
	3. FASEA	
-F3.01	DEMOLICIONES.....	972,35
	ERASPENAK	
-F3.02	ESTRUCTURA.....	3.426,67
	EGITURA	
-F3.03	SERVICIOS.....	300,00
	ZERBITZUAK	
-F3.04	FIRMES Y PAVIMENTOS.....	3.426,82
	BIDE ZORUAK ETA ZOLADURAK	
-F3.05	MOBILIARIO URBANO.....	3.467,65
	HIRI-ALTZARIAK	
-F3.GR	GESTIOS DE RESIDUOS.....	237,00
	HONDAKINEN KUDEAKETA	
-F3.CC	CONTROL DE CALIDAD.....	290,93
	KALITATE-KONTROLA	
-F3.SS	SEGURIDAD Y SALUD.....	985,54
	SEGURTASUNA ETA OSASUNA	



TOLOSAKO
UDALA

FASE 1	32.912,22 €
FASE 3	13.106,95 €
<hr/>	
Presupuesto ejecución material	46.019,17 €
Gastos generales	5.982,49 €
Beneficio industrial	2.761,15 €
<hr/>	
Preupuesto ejecución contrata	54.762,81 €
IV A	11.500,19 €
<hr/>	
TOTAL	66.263,00 €

Tolosako Udalak Kontsignaturik du aipatutako dirua 2018ko aurrekontuan, 0700.622.02.920.31 2018 partidan.

Aurrekontua **66.263 €-koa da**, %21eko BEZa barne, horietatik 54.762,81 € printzipalari dagozkio eta 11.500,19 € %21eko BEZari. Esleipen prozesuak kopuru hori zehaztuko du. Bestalde, kopuru horretan ez dira sartu proiektuaren kostua, obra zuzendaritza...

VIII. ESLEIPEN PROZEDURA

Lanen objektua eta aurrekontua ikusita, prozedura ireki sinplifikatu bitartez esleipena bideratzea proposatzen da.

Baldintza pleguetan ondorengo puntuak hartu daitezke kontuan:

- Aurrekontuaren hobekuntza.

IX. PROPOSAMENA

Ondorioz, aipaturiko helburuak kontuan izanik, Olarrain auzo elkartean irisgarritasuna bermatzeko gauzatzeko obrak egikaritzeko proiektua onartzeko arazorik ez dagoela adierazten dut;

Aurrekontua **66.263 €-koa da**, %21eko BEZa barne, horietatik 54.762,81 € printzipalari dagozkio eta 11.500,19 € %21eko BEZari.

Hori horrela, Udal Teknikariek egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Olarrain auzo elkartean irisgarritasuna bermatzeko gauzatze obrak egikaritzeko proiektua, ondorengo aurrekontuarekin: **66.263 €-koa da**, %21eko BEZa barne, horietatik 54.762,81 € printzipalari dagozkio eta 11.500,19 € %21eko BEZari.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Hirigintza departamentuari.

4. ONARTZEA TOLOSAKO OLARRAIN AUZO-ELKARTEKO ERAIKINAREN IRISGARRITASUNA BERMATZEKO OBREN KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO JARDUNBIDEARI HASIERA EMATEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

kontratuaren xedea:	Tolosako Olarrain auzo-elkartearen irisgarritasuna bermatzeko obrak.
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentua.
Espedientea:	2018OASI0005

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

2.- Aurrekariak

Lehena.- Alkate-Udalburuak, 2018ko irailaren 4ko Alkatezaren Dekretu bidez, Tolosako Olarrain auzo-elkartearen irisgarritasuna bermatzeko obrak jasotzen zituen proiektua onartu zuen. Proiektuarekin batera, ezinbestekoa zen zuinketa-akta jaso zen espedientean, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236. artikuluan xedatutakoaren arabera. Behin jardunbide osoa burututa, eskaintzak aurkezteko epean enpresek ez zuten eskaintzarik aurkeztu eta ondorioz, 2018ko urriaren 29an Alkatezaren Dekretu bidez, **huts deklaratu zen aipatutako lizitazioa.**

Bigarrena.- Aurrekoaren ondorioz eta obren beharra ikusirik, 2018ko azaroaren 28an Hirigintza Departamentuko buruak egindako txostenarekin, berriro martxan jarri zen obraren lizitazioa. Horrek ondorio dakar, Tolosako Olarrain auzo-elkarteko eraikinaren



irisgarritasuna bermatzeko obrak jasotzen dituen proiektu berria onartu beharko dela sartu diren aldaketekin eta aurreikusita dagoen bezala, 2018ko abenduaren 17an egingo den Tokiko Gobernu Batzarrak onartuko du. Obren premiatasuna ikusirik, behin aurrekoa onartuta, aurreikusita dago egun berean onartuko dela lizitazio jardunbidea martxan jartzea.

Proiektuarekin batera, ezinbestekoa den zuinketa-akta jasotzen da espedientean, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laburbildurik, proiektuak jasotako lanak ondorengo hauek dira:

- 1. Fasea. Sarbidea bidetik.
- 2. Fasea. Eraikina eta plazarekin lotura.
- 3. Fasea. Eskailera eta hegalararen eraisketa eta berreraiketa.

SPKLren 232.1.c) eta 3. artikuluan, hau xedatzen da: *“Clasificación de las obras. 1. A los efectos de elaboración de los proyectos se clasificarán las obras, según su objeto y naturaleza, en los grupos siguientes:*

- a) Obras de primer establecimiento, reforma, restauración, rehabilitación o gran reparación.*
- b) Obras de reparación simple.*
- c) Obras de conservación y mantenimiento.*
- d) Obras de demolición.*

...

3. El concepto general de reforma abarca el conjunto de obras de ampliación, mejora, modernización, adaptación, adecuación o refuerzo de un bien inmueble ya existente.”.

Beraz aurrekoa aintzat harturik, proiektaturiko lanak, *“a) Obras de primer establecimiento, reforma, restauración, rehabilitación o gran reparación.”* taldean sartuko liratekela ondorioztatu da, ondorengo hauek kontuan hartuta:

- Eraikinik ez da sortzen: *“Son obras de primer establecimiento las que dan lugar a la creación de un bien inmueble.”.*
- Lan horiek ezin dira kalifikatu konponketa gisa, SPK Legeak bere 232.4 artikuluan xedatutakoaren arabera: *“Se consideran como obras de reparación las necesarias para enmendar un menoscabo producido en un bien inmueble por causas fortuitas o accidentales.”.*
- Egingo diren lanak, erabileratik sorturiko mantenu soila gainditzen dute.

Beraz, onarturiko proiektua aztertu ondoren, eta SPKLren 231. eta 232. artikuluetan xedaturikoa kontuan hartuz, Tolosako Olarrain auzo-elkartearen irisgarritasuna bermatzeko obrak, **erreforma lanak** direla ondorioztatu daiteke.

Horretarako, egoki diren kudeaketak eta beharrezkoa den hasierako dokumentazioa eginda, izenpetzaileak organo eskudunaren onespenerako jartzen ditu aipaturiko



kontratuari dagokion espedientea, jarraian jasotako txostenaren eta proposamenaren arabera.

3.- Kontratazio-espedientea, kontratuaren izaera eta kaudimena

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117 artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko Arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Proiektua: Memoria, Preskripzio Teknikoen Orria eta Aurrekontua.
- Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria

Halaber, espedientea osatu beharko da Kontuhartzailearen txostenarekin.

Kontratu honek administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikuluan a) atalean xedaturikoarekin bat, obra kontratua hain zuzen ere, aipatu Legearen 13. artikuluan xedaturikoaren arabera. Izan ere, SPKLren 13.1 artikuluan araututakoaren arabera, obra kontratuaren xedea, I. Eranskinean aurreikusitako lanen bat exekutatzeari izango dela ikusirik, burutu nahi diren lanak aipaturiko Eranskinaren 45.21 atalean sailkaturikoak agertzen dira: "*construcción general de edificios y obras singulares de ingeniería civil (puentes, túneles, etc.)*".

Bestalde, obra kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

Lehena: SPKLren 99.3 artikulua hau xedatzen du loteetan banatzeari buruz: "*Siempre que la naturaleza o el objeto del contrato lo permitan, deberá preverse la realización independiente de cada una de sus partes mediante su división en lotes, pudiéndose reservar lotes de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional cuarta. No obstante lo anterior, el órgano de contratación podrá no dividir en lotes el objeto del contrato cuando existan motivos válidos, que deberán justificarse debidamente en el expediente, salvo en los casos de contratos de concesión de obras.*".

Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia**, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta, **54.762,81 eurokoa** dela, kontratazio honetan ez da loteetan banaketarik aurreikusi, eta hori justifikatu da espedientean. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua



66.263,00 eurokoa da, horietatik 54.762,81 euro printzipala eta 11.500,19 BEZari dagozkionak (%21).

Bigarrena.- Hori horrela, nahiz eta obra kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19. artikulua arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan, kasu honetan, 20.1 artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen ez duenez (5.548.000 €), ez zaio araudi horri lotzen. Halaber, kontratazioari buruzko errekurtso berezia ezin izango da tartekatu, aipatu Legearen 44.1a) artikulua xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 3.000.000 euroko kopurua ez duelako gainditzen.

Hirugarrena.- Bestalde, Baldintza Administrazioen Pleguaren I titulua IV. Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11, atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKL-k bere 86, 87, eta 88. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Kasu honetan, kontuan hartu behar da kontratuaren balio zenbatetsiak ez duela gainditzen 500.000 euroko kopurua. Beraz:

- Enpresa berriek parte har dezakete lizitazioan (88.2 artikulua).
- Lizitatuzaileen gaitasunari dagokionez, lizitatuzaileen sailkapena ez da nahitaezkoa izango (77.1.a) artikulua). Hala ere, sailkapenak gaitasuna eta kaudimena egiaztatuko ditu botere esleipendunaren aurrean (artikulu bera, bigarren paragrafoa)

Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa: *“La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra o de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio.”.*

4.- Espediente mota



SPK Legeak bere 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: *“geroraezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espeditenteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espeditenteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arazoituta”*. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: *“hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...”*

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritik.

5.- Kontratuaren ezaugarriak

Obra kontratua gauzatzeko gehienez **HILABETE** bat ezarri da, zuinetaren egiaztapen akta sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lizitazio prezio orokorra ondoko hau izango da: 66.263,00 euro, horietatik 54.762,81 euro printzipala eta 11.500,19 BEZ-ari dagozkionak (%21).

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea, kontratuaren xede diren lanak, udal aurrekontu-partida honen kargura finantzatzeko dela: **0700.622.02.920.31**

Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

6.- Esleipena egiteko jardunbidea eta modua

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido...”*

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espeditente honetan **jardunbide ireki sinplifikatua** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala proposamen tekniko eta batik bat ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia



printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 20. klausulan eta bere I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak hain zuzen ere. Kasu honetan, balio-judizioetan oinarritutako irizpiderik ez dago, eta balorazio osoa formulatan oinarritu da Beraz, SPKLren 159.1.b) artikuluan (balio-judizioetan oinarritutako irizpideak % 25a ez gainditzea) bete da.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPK Legearen 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, 6 hilabetetan finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak ez duelako 1.000.000 €-ko kopurua gainditzen. Kasu honetan, aipatu Legearen 243.3 atalean xedaturiko kasu bereziaren aurrean gaudela iradoki du Idazkari honek.

7.- Administrazio baldintza zehatzen agiria eta preskripzio teknikoen orria

Kontratazio-espeditarekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu dira, SPK Legearen 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

8.- Kontratazio-organoa

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikokoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPK Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, printzipioz, eskumena Alkate-Udalburuarena da. Hala ere, Tolosako udalaren kasuan, udal honetako Alkate-Udalburuak 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretua kontutan hartuz, eskumena Tolosako **Tokiko Gobernu Batzarrari** dagokiola ondorioztatu du Idazkari honek.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPK Legearen 190 eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta Udal teknikarien proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO
UDALA

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Olarrain auzo-elkarteko eraikinaren irisgarritasuna bermatzeko obrak, Hirigintzako Departamentuko buruak egindako txostenean aurreikusitako obrak kontratazeko espedientea.

BIGARRENA.- Lizitazioari hasiera ematea eta oinarrizko aurrekontua onartzea, ondokoaren arabera: Lizitazio prezio orokorra ondoko hau izango da: 66.263,00 euro, horietatik 54.762,81 euro printzipala eta 11.500,19 BEZ-ari dagozkionak (%21).

HIRUGARRENA.- Kontratazio honen xede diren obrak gauzatzeko gehieneko epea **hilabetekoa** izango da, obraren zuinketa egiaztapeneko akta izenpetu sinatu eta hurrengo egunetik hasita.

LAUGARRENA.- Kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.

BOSGARRENA.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide ireki sinplifikatua) eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako udaleko kontratugilearen profilean, lizitatuzaileek beren proposamenak **hogei egun naturaleko epean** aurkez ditzaten, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

SEIGARRENA.- Erabaki horiek Kontuhartzaitetza Departamentuari jakinaraztea.

5. TOLOSALDEKO ENPRESEK LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONAK KONTRATATZEKO 2018 EKITALDIRAKO LANBIDEK SUSTATUTAKO DIRU-LAGUNTZEN BANAKETA ONARTZEA.

Gaia mahai gainean geratu da.

6. TOLOSAKO UDALETXEAREN TOKIKO EREMUAREN INFORMATIKA-SAREAK BERRITU ETA ZABALTZEKO HORNIDURAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIO JARDUNBIDEARI HASIERA EMATEA



1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea:	Tolosako Udaletxearen tokiko eremuaren informatika-sareak berri eta zabaltzeko hornidura.
Unitate sustatzailea:	Informatika
Espedientea:	2018HASI0002

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

2.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Informatika Departamentuko buruak 2018ko azaroaren 31n egindako txostenaren bitartez, aipatutako xedea duen kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, Administrazio klausula partikularren plegua, baldintza teknikoen plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta Idazkaritza eta Kontuhartzaitzaren txostenak eskatzen ziren jardunbidea burutu ahal izateko.

Bigarrena.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere IV. Kapituluaren (298. artikulutik aurrera), Hornidura kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, alokairua, egikaritzea, prezioaren ordainketa eta kontratua etetea beste batzuen artean.

Hirugarrena.- Aipatutako txostenean, administrazio baldintza zehatzen agiria osatzeko oinarrizko datuen inguruan egindako txostenean, kontratuaren xehetasunak aipatu zituen: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, bermealdia eta esleipen irizpideak.

Laugarrena.- Halaber aipatutako txostenean, SPKLaren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du bere 28. artikuluan:

“Artículo 28. Necesidad e idoneidad del contrato y eficiencia en la contratación.

1. Las entidades del sector público no podrán celebrar otros contratos que aquellos que sean necesarios para el cumplimiento y realización de sus fines institucionales. A tal efecto, la naturaleza y extensión de las necesidades que pretenden cubrirse mediante el contrato proyectado, así como la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, cuando se adjudique por un procedimiento abierto, restringido o negociado sin publicidad, deben ser determinadas con precisión, dejando constancia de ello en la documentación preparatoria, antes de iniciar el procedimiento encaminado a su adjudicación.”



3.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espeditentea osatu behar da. Espeditentea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117 artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espeditentea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatzen da:

- Administrazio baldintza zehatzen agiria osatzeko oinarritzko datuen inguruko txostena, zeinak baliabide propioak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen.
- Baldintza teknikoaren plegua.
- Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria.

Halaber, espeditentea osatu beharko da Kontuhartzailearen txostenarekin.

Kontratu honek, administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikuluan a) atalean xedaturikoarekin bat; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 16. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten den: *“Artículo 16. Contrato de suministro. 1. Son contratos de suministro los que tienen por objeto la adquisición, el arrendamiento financiero, o el arrendamiento, con o sin opción de compra, de productos o bienes muebles. 2. Sin perjuicio de lo dispuesto en la letra b) del apartado 3 de este artículo respecto de los contratos que tengan por objeto programas de ordenador, no tendrán la consideración de contrato de suministro los contratos relativos a propiedades incorpóreas o valores negociables. 3. En todo caso, se considerarán contratos de suministro los siguientes: a) Aquellos en los que el empresario se obligue a entregar una pluralidad de bienes de forma sucesiva y por precio unitario sin que la cuantía total se defina con exactitud al tiempo de celebrar el contrato, por estar subordinadas las entregas a las necesidades del adquirente. b) Los que tengan por objeto la adquisición y el arrendamiento de equipos y sistemas de telecomunicaciones o para el tratamiento de la información, sus dispositivos y programas, y la cesión del derecho de uso de estos últimos, en cualquiera de sus modalidades de puesta a disposición, a excepción de los contratos de adquisición de programas de ordenador desarrollados a medida, que se considerarán contratos de servicios. c) Los de fabricación, por los que la cosa o cosas que hayan de ser entregadas por el empresario deban ser elaboradas con arreglo a características peculiares fijadas previamente por la entidad contratante, aun cuando esta se obligue a aportar, total o parcialmente, los materiales precisos. d) Los que tengan por objeto la adquisición de energía primaria o energía transformada.”*

Bestalde, zerbitzu kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:



Lehena.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia**, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta, **100.000,00 eurokoa** dela. Kontratazio honetan ez da loteetan banaketarik aurreikusi, eta hori justifikatu da espedientean.

Hori horrela, nahiz eta hornidura kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19 artikulua araberan, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan, kasu honetan, 21. artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen ez duenez (221.000 €), ez zaio araudi horri lotzen. Halaber, kontratazioari buruzko errekurtso berezia ezin izango da tartekatu, aipatu Legearen 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua ez duelako gainditzen.

Bigarrena.- Bestalde, Baldintza Administrazioen Pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk bere 86, 87, eta 89. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Halaber, eta ordainagiriaren ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikulua xedaturikoa: *“La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra o de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio”.*

4.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLk bere 116, 119 eta 120 artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espedienteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: *“geroraezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espedienteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espedienteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arrazoituta”.* Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.



Larrialdietakoak aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: *“hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...”*

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

5.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Hornitu, instalatu, konfiguratu, mugitu, prestatu eta ebazpena balidatzeko gehienezko epea **hilabetekoa** izango da kontratua sinatzen denetik. **Plegu teknikoko 3.2.5 puntuko lanek eginda egon beharko dute, sareko elektronika guztia instalatua, konfiguratua eta testatua, beti ere, 2019ko otsailaren 8rako.** Halaber, kontratua sinatu eta hurrengo 2 urteetan, enpresa esleipendunak sortutako azpiegituraren mantenu zerbitzuak prestatu beharko ditu.

Oinarrizko lizitazio aurrekontua ondoko hau izango da: 121.000,00 euro, horietatik 100.000,00 euro printzipala eta 21.000,00 euro BEZari (% 21) dagozkionak. Halaber, kontratu honen **balio zenbatetsia** 100.000,00 eurokoa da.

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea, kontratuaren xede diren lanak, **0300.626.01.920.20** aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko direla.

Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeak eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

6.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPK Lan jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido...”*

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espeditente honetan **jardunbide ireki sinplifikatua** erabiltzea, gardentasuna, publizitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala proposamen tekniko eta batik bat ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156, 157, 158 eta 159 artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki egin beharko da.



Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 20. klausulan eta bere I Eranskinaren 10 eta 18 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145, 156, 157 eta 158 artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak hain zuzen ere.

Kasu honetan, SPKLk 145. artikuluan xedatutakoa betetzen da:

“1. La adjudicación de los contratos se realizará utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación en base a la mejor relación calidad-precio. 2. La mejor relación calidad-precio se evaluará con arreglo a criterios económicos y cualitativos. Los criterios cualitativos que establezca el órgano de contratación para evaluar la mejor relación calidad-precio podrán incluir aspectos medioambientales o sociales, vinculados al objeto del contrato... 4. Los órganos de contratación velarán por que se establezcan criterios de adjudicación que permitan obtener obras, suministros y servicios de gran calidad que respondan lo mejor posible a sus necesidades; y, en especial, en los procedimientos de contratos de servicios que tengan por objeto prestaciones de carácter intelectual, como los servicios de ingeniería y arquitectura... 5. Los criterios a que se refiere el apartado 1 que han de servir de base para la adjudicación del contrato se establecerán en los pliegos de cláusulas administrativas particulares o en el documento descriptivo, y deberá figurar en el anuncio que sirva de convocatoria de la licitación. Se considerará que un criterio de adjudicación está vinculado al objeto del contrato cuando se refiera o integre las prestaciones que deban realizarse en virtud de dicho contrato, en cualquiera de sus aspectos y en cualquier etapa de su ciclo de vida,...”.

Azkenik, berme-epari dagokionez, urtebeteko epea ezarri da eta SPKLren 111.5 artikulua azken idatz-zatian xedaturikoa betetzen bada, epe hau 6 hilabetekoa izango da, kontratuaren balio zenbatetsiak ez baitu 1.000.000 euroko zenbatekoa gainditzen.

7.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA

Kontratazio-espeditarekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu dira, SPKLren 122 eta 124 artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

8.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, eskumena Alkate-Udalburuarena da. Hala ere, Tolosako udalaren kasuan, udal honetako Alkate-Udalburuak 2015eko uztailaren



TOLOSAKO
UDALA

28an emandako Dekretua kontutan hartuz, eskumena Tolosako **Tokiko Gobernu Batzarrari** dagokiola ondorioztatu du Idazkari honek.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190 eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, Idazkaritza eta Kontuhartzailtza Departamentuek egindako aldeko txostenak eta Udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Udaletxearen tokiko eremuaren informatika-sareak berritu eta zabaltzeko hornidura kontratuaren espedientea.

BIGARRENA.- Lizitazioari hasiera ematea eta **oinarrizko lizitazio aurrekontua eta lizitazio prezio orokorra ondoko hau izango da:** 121.000,00 euro, horietatik 100.000,00 euro printzipala eta 21.000,00 euro BEZari (% 21) dagozkionak. Halaber, kontratu honen **balio zenbatetsia** 100.000,00 eurokoa da.

HIRUGARRENA.- Hornitu, instalatu, konfiguratu, mugitu, prestatu eta ebazpena balidatzeko gehieneko epea **hilabetekoa** izango da kontratua sinatzen denetik. **Plegu teknikoko 3.2.5 puntuko lanak eginda egon beharko dute, sareko elektronikak guztia instalatua, konfiguratua eta testatua, beti ere, 2019ko otsailaren 8rako.** Halaber, kontratua sinatu eta hurrengo 2 urteetan, enpresa esleipendunak sortutako azpiegituraren mantenu zerbitzuak prestatu beharko ditu.

LAUGARRENA.- Kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.

BOSGARRENA.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (**jardunbide ireki sinplifikatua**) eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako udaleko kontratugilearen profilean, lizitatzailleek beren proposamenak **15 egun naturaleko** epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

SEIGARRENA.- Erabaki horiek Kontuhartzailtza Departamentuari jakinaraztea.



TOLOSAKO
UDALA

7. 70/2018 ETA 71/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzaitzak **70/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa da **47.727,73 €**.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 70/2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Kontuhartzaitzak **71/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa da **52.768, 09 €**.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 71/2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA